

HOSTED BY



WINE VISION BASQUE COUNTRY-RI BURUZKO PRENTSA OHARRA

ARDOAREN INDUSTRIARIK ESKLUSIBOENENKO MUNDUKO 180 LIDER HIRU EGUNETAN ELKARREKIN, EUSKADIN SEKTOREAREN ETORKIZUNA ANALIZATZEKO

- Wine Vision urtero ardoarekin lotura duten enpresetako arduradunak eta adituak elkartzen dituen ekitaldia da, eta Londresen bere lehenengo bi edizioak egin ondoren Euskadira heldu da
- Abenduaren 9tik 11ra, Kongresuak hitzaldiak eta bilerak egingo ditu Azkuna Zentroan eta Guggenheim Museoan, Arabako Errioxara eta Donostiako Basque Culinary Centerrera egingo dituen bisitez gain
- Eneko Atxa, Azurmendi jatetxekoa, Josean Alija, Neruakoa, eta Llorenç Sagarra, Mugaritzekoa, inaugurazioko harrera galako afariaz arduratuko dira asteazkenean, afaria *in situ* eginda
- Wine Vision 2015 aurkezpen bideoa:
<https://www.youtube.com/watch?v=DXxYLir0GyY>

Bilbo, 2015eko abenduaren 7a.- Abenduaren 9tik 11ra bitartean Bilbo ardoaren munduko hiriburua izango da, Wine Visionen hirugarren edizioa hartuko baitu, non ardo sektoreak munduan dituen 150 lider baino gehiago bilduko diren, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburu Arantxa Tapia ekitaldiko buru delarik. Ardoa ekoizten duten eskualderik ezagunenetako batzuen ondoan –Txiletik Kaliforniara eta Hegoafrikatik Australiara, Europako izendapenik ospetsuenetatik pasatuta–, ekitaldian elkartuko dira merkaturatzaileak, handizkariak eta inportatzaileak, marketineko adituak, aholkulariak, dastatzaileak, mahastizainak, ardogileak eta ardoak online saltzeko mundu osoko plataformak.

Wine Vision William Reed Business Media nazioarteko elikadura eta banaketa sektoreen gaineko informazioan liderra den argitalpen talde britainiar ospetsuaren egitasmoa da. Ekitaldia Londresen hasi zen egiten, 2013an, eta, Ingalaterrako hiriburuan bigarren edizioa egin ondoren, Euskal Herria aukeratu da beste etapa bati ekiteko. Etapa berri honetan munduko eskualde ekoizlerik ospetsuenek izango dute hitzordua, eskala globalean mahastizaintza eta



HOSTED BY



ardogintzaren negozioarentzat garrantzitsuenetako bat jotzen den ekitaldi honetarako.

Euskadi munduan kalitaterik hoberena duten ardoen ekoizlea den zonalde bat ordezkatzeko aukeratu den lehen leku izatea, Eusko Jaurlaritzak, Bizkaiko Foru Aldundiak eta Bilboko Udalak batera egindako kudeaketaren emaitza da. Hiru erakundeak koordinatuta aritu dira erakundeari egoitza bat eskaintzeko orduan, azkenean Arabako Errioxaren izendapenaren ospeak, Europan dagoen gastronomia unibertsitate bakarrak (Basque Culinary Center) eta Bilbo berriaren arkitekturak, bereziki, Wine Visionen bi lan egoitzek –Guggenheim Museoa, batetik, eta Azkuna Zentroa, bestetik– pizten duten interesean oinarrituta.

Bilera ardoaren industriarekin lotura dute arduradun, aditu eta goi exekutiboen aukerako talde bat hartzeko diseinatuta dago. Helburua da sektoreak dituen erronkak eta aukerei eskala globalean eta ikuspuntu guztietatik heltzea, etorkizunari berrikuntzako irizpideekin eta arrakasta izateko bermekin aurrea hartzeko. Asmoa da pentsamendu tradizionalari erronka bat planteatzea, sortzen ari diren merkatuak aztertuta eta ekoitzi, saldu eta marka indartsuagoak sortzeko modu berriak esploratuz, kontsumitzailearen eskakizun berrietara egokitzeko.

Lan jardunaldiak Azkuna Zentroan eta Guggenheim Museoan egingo dira, baina jardunaldietara bertaratzen direnek Donostiako hiriburuko Basque Culinary Center eta Arabako Errioxa bisitatzeko aukera izango dute. Izan ere, erakundeak Bilbo aurkezten du “*milaka ardoren lurralderako atea*”, Arabako ardo eskualdeari hala deitzen dio eta.

Wine Vision 2015eko gai nagusiak

Munduko eskualde ekoizle ospetsuenetako batzuen ordezkariak agertzen dira bertaratuko direnen artean. Amerikako ardoak ordezkatzeko kontinente osotik etorritako ardogileak etorriko dira, Kanadakoak zein Txilekoak, bai eta Kaliforniako Napa haranekoak ere. Hego hemisferiorik Hegoafrikako, Australiako edo Zeelanda Berriko mahastien ordezkariak etorriko dira. Eta Europako ekoizle nagusiak ere egongo dira hitzorduan (Frantzia, Italia, Espainia, Portugal, Errumania...), eta horien artean euskal ordezkariak izango dira, Arabako Errioxako ardoekin eta txakolinarekin.

Nazioarteko topaketa honek sektorearen etorkizunaz eztabaidatzeko foro gisa piztu duen interesaz gain, *Wine Vision* Euskal Herrian egiteak aukera ezin hobe ematen du Euskadin ekoiztako ardoen ospea babesteko eta indartzeko. Mundu osoko 200 pertsona ospetsuren presentzia, horietako asko eskala globalean sektorerako prestigio handiko preskriptore ezagunak izanik, erakusleihorik hoberena da Euskadin egindako ardoetarako, eta, nola ez,

HOSTED BY



Euskadi Basque Country ardoak gehiago ezagutu eta balioesteko lagungarria izango da.

Hizlariei dagokienez, azpimarratzekoa da haien kalitatea eta aniztasuna, mahastizainen eta ardogileen esperentziaz gain beste gai batzuen gainean ere arituko dira baitira: merkatu ikertzaileak, marketineko adituak, aholkulariak, sukaldaritzako profesionalak, kazetari espezializatuak ere egongo dira, bai eta Twitterreko aditu bat ere, eta ardoa estimatu, erosi eta saltzeko modu berri batez arituko dira. Horien artean bi ordezkari euskaldun daude: Javier Ruiz de Galarreta, Araex Rioja Alavesako lehendakari eta zuzendari orokorra, eta Bertol Izagirre, Gorka Izagirre Upategiko zuzendaria. Nerua jatetxeko *maîtrea* (Stefania Giordano) eta *sommelierra* (Ismael Alvarez) ere agertzen dira hizlarien zerrendan.

Hauk dira Wine Vision 2015 ekitaldiko 'plater nagusiak':

- “Luxuaren” birdefinizioa etorkizuneko ardoaren merkaturako, Tentua Dell’Ornellaiako lehendakari exekutibo Giovanni Geddes da Filicajaren eskutik. Munduko ardorik gutziziatuetako bi egiten dituen upategia da Tentua Dell’Ornellaia.
- Invivo Winesek TOP 50 Deloitten sartzeko egindako bidea zehaztasunez azaltzen duen txostena, enpresaren sortzaileetako bat den eskutik, Tim Lightbourne. Izan ere, merkatura atera eta zazpi urtera jada lortu zuen TOP 50 Deloitten sartzea, eta, enpresaren bigarren hazkunde etapa bultzatzeko, ‘crowd funding’-aren alorrean (finantzaketa kolektiboa) errekorrak hautsi ditu.
- Ardoaren marketinaren arau berrien gaineko sarrera bat, joera markatzen duen gizon ezagun baten eskutik. Mike Ratcliffeek arauak ezarri eta hautsi ditu Hegoafrikako Warwick Estate upategiko Zuzendari Exekutibo gisa eta Vilafonté Hegoafrika eta Amerikako Vilafonté joint venturean.
- Txinako merkaturan gertatutako botere aldaketak eta ardoaren demokratizazioa arretaz gainbegiratzea, Txinan Chateau Changyu MOSER XV ardogile buru den Lenz M. Moser adituarekin.
- “Fusioko ardoen” eta ardo horiek esperentzia berrien irrikan dauden kontsumitzaileentzat duten erakargarritasunaren azterketa, fruta ardoan aditu, sommelierra, ardogilea, banatzailea eta esportatzailea den Dominic Rivardren eskutik.
- Sonoma County eskualdearen hazkunde zehaztasunez azaltzen duen txosten bat –2019rako Amerikako %100 iraunkorra den lehen ardo eskualde izateko bidean dago–, Sonoma County Winegrowerseko lehendakari Karissa Kruseren eskutik.
- Lehiakideen arteko lankidetzarako deia, sektorearen perfila suspertzeko Taylor’s Porteko zuzendari exekutibo Adrian Bridgeren eskutik.



HOSTED BY



- Inbertsio eta hazkunderako estrategia alternatiboen azterketa, Terroir Selectionsen sortzaile Charles Banksen eskutik, zeina Jonata eta Screaming Eagle marken arrakasta handiagatik ezaguna baita.

6 Michelin izar Guggenheimeko inaugurazio afarirako

*Wine Vision*en hirugarren edizio honetara bertaratuko direnei Guggenheim Museoan egingo diete harrera, eta inaugurazioko afaria eskainiko diete bertan, abenduaren 9an. Azurmendi jatetxeko Eneko Atxa, Nerua jatetxeko Josean Alija eta Andoni Luis Adurizen Mugaritz jatetxearen ordezkartzan etorritako Llorenç Sagarra sukaldari ospetsuek egingo dute afaria hantxe bertan. Hirurek batera 6 Michelin izar egiten dituzte.

Ostegunean, hilak 10, lehen lan jardunaldia egingo da, eta egunari amaiera emateko Larrabetzuko Azurmendi jatetxean afari bat egingo da, Azurmendi baita Bizkaian 3 Michelin izan dituen jatetxe bakarra. Hitzaldien bigarren eta azken lan saioa ostiral goizean izango da, hilak 11, Guggenheim Museoaren auditoriumean, Silken Domine hoteleko Doma jatetxean gosaldu ondoren. Arratsaldean irteera bat antolatu da Donostiara, eta irteera horretan Basque Culinary Center –Europako gastronomia unibertsitate bakarra– eta hiria bera bisitatuko dira, bai eta San Telmo Museoan pintxo dastaketa egin ere.

Ekitaldia abenduaren 12an, larunbata, bukatuko da, bigarren irteera batekin. Arabako Errioxara joango da. Han, Guardia ikusiko da, bisita gidatu baten bidez, Marqués de Riscal upategirako Frank Gheryk diseinatutako hotelean kafe bat hartuko da, Samaniegoko Baigorri Upategietan bazkaria, eta iluntzean Eskuernagako Luis Cañas Begiratokian dastaketa bat.

INFORMAZIO GEHIAGO

WINE VISION BASQUE COUNTRY – Ana Larizgoitia

Tel: 94 416 08 00

Mugikorra: 656 788 328

press@winevisionbasquecountry.com

<http://www.winevision.com/>



HOSTED BY



NOTA DE PRENSA WINE VISION BASQUE COUNTRY

180 LÍDERES MUNDIALES DE LA INDUSTRIA MÁS EXCLUSIVA DEL VINO SE REÚNEN DURANTE TRES DÍAS EN EUSKADI PARA ANALIZAR EL FUTURO DEL SECTOR

- *Wine Vision* es un evento anual que congrega a expertos y responsables de empresas relacionadas con el vino de los cinco continentes, y que recala en Euskadi tras haber celebrado en Londres sus dos primeras ediciones
- Del 9 al 11 de diciembre, el Congreso celebrará conferencias y reuniones en Azkuna Zentroa y en el Museo Guggenheim, además de visitas a la Rioja alavesa y al Basque Culinary Center de la capital donostiarra
- Eneko Atxa, del restaurante Azurmendi; Josean Alija, del Nerua; y Llorenç Sagarra, del Mugaritz, serán los encargados de cocinar in situ la cena de gala de la recepción inaugural este miércoles
- Vídeo presentación Wine Vision 2015:
<https://www.youtube.com/watch?v=DXxYLir0GyY>

Bilbao, 7 de diciembre de 2015.- Bilbao se va a convertir, entre los días 9 y 11 de diciembre, en capital mundial del vino, al acoger la celebración de la tercera edición de *Wine Vision*, un evento que reunirá a 150 líderes mundiales del sector vinícola y que estará presidido por la Consejera de Desarrollo Económico y Competitividad del Gobierno Vasco, Arantxa Tapia. Junto a algunas de las regiones productoras más conocidas—de Chile a California y de Sudáfrica a Australia, pasando por las denominaciones más prestigiosas de Europa—, el evento reunirá a comercializadores, mayoristas e importadores, expertos en marketing, consultores, catadores, viticultores, bodegueros y plataformas de venta *online* de caldos procedentes de todo el mundo.

Wine Vision es una iniciativa de la prestigiosa firma británica William Reed Business Media, grupo editorial líder en información sobre los sectores de alimentación y distribución a escala internacional. El evento se puso en marcha en Londres en 2013 y, tras una segunda edición en la capital inglesa, se ha elegido el País Vasco para abrir una nueva etapa en la que sean las regiones productoras más prestigiosas del mundo las que acojan una cita que está



HOSTED BY



considerada entre las más relevantes a escala global para el negocio vitivinícola.

El hecho de que Euskadi se haya convertido en el primer destino seleccionado para representar a una zona productora de vinos de primera calidad mundial es el resultado de una gestión conjunta entre el Gobierno Vasco, la Diputación Foral de Bizkaia y el Ayuntamiento de Bilbao. Las tres instituciones se han coordinado a la hora de ofertar una sede que ofrece a la organización el prestigio de la denominación Rioja Alavesa, la presencia de la única universidad gastronómica europea (el Basque Culinary Center) y el interés que suscita la arquitectura del nuevo Bilbao, especialmente de las dos sedes de trabajo de *Wine Vision*, como son el Museo Guggenheim y Azkuna Zentroa.

La reunión está diseñada para acoger a un selecto grupo de responsables, expertos y altos ejecutivos relacionados con la industria del vino. El objetivo es abordar los retos y oportunidades que presenta el sector a escala global y desde todos los puntos de vista, para afrontar el futuro con criterios de innovación y garantías de éxito. Se trata de plantear un reto al pensamiento tradicional, analizando mercados emergentes y explorando nuevas maneras de producir, vender y crear marcas más potentes, adaptándose a los nuevos requerimientos del consumidor.

Las jornadas de trabajo se celebrarán en Azkuna Zentroa y en el Museo Guggenheim, pero los asistentes tendrán ocasión de visitar el Basque Culinary Center de la capital donostiarra y la Rioja alavesa. De hecho, la organización presenta Bilbao como “*puerta de entrada a la tierra de los mil vinos*”, como define a la región vinícola de Álava.

Los platos fuertes de Wine Vision 2015

Entre la lista de asistentes figuran responsables de algunas de las regiones productoras más prestigiosas del mundo. Los caldos americanos estarán representados por viticultores de todo el continente, desde Canadá a Chile pasando por los del valle de Napa en California. Del hemisferio sur llegarán representantes de los viñedos de Sudáfrica, Australia o Nueva Zelanda. Y no faltarán a la cita los principales productores europeos (Francia, Italia, España, Portugal, Rumanía...), entre ellos la representación vasca a través de los vinos de Rioja alavesa y del txakoli.

Junto al interés de este encuentro internacional como foro de debate en torno al futuro del sector, la celebración de *Wine Vision* en el País Vasco constituye una excelente oportunidad para respaldar y reforzar el prestigio de los vinos producidos en Euskadi. La presencia de 200 personalidades de todo el mundo, que son en muchos casos reconocidos prescriptores de alto prestigio para el sector a escala global, constituye el mejor escaparate para los caldos



HOSTED BY



elaborados en Euskadi, y contribuirá sin duda a un mayor reconocimiento y aprecio de los vinos *Euskadi Basque Country* en el ámbito internacional.

En cuanto a los ponentes, destaca la calidad y variedad de los mismos, ya que las intervenciones no se van a limitar a la experiencia de viticultores y bodegueros: investigadores de mercado, expertos en marketing, consultores, profesionales de la restauración, periodistas especializados y hasta un experto en Twitter abordarán la nueva manera de apreciar, comprar y vender el vino. Entre ellos figuran dos representantes vascos: Javier Ruiz de Galarreta, presidente y director general de Araex Rioja Alavesa, y Bertol Izagirre, director de la Bodega Gorka Izagirre. La *maître* (Stefania Giordano) y el *sommelier* Ismael Álvarez del restaurante Nerua figuran asimismo en la lista de intervinientes.

Wine Vision 2015 incluye los siguientes 'platos fuertes':

- Una redefinición del 'lujo' para el mercado del vino del mañana por Giovanni Geddes da Filicaja, Presidente Ejecutivo de Tentua Dell'Ornellaia, la bodega que produce dos de los vinos más codiciados del mundo.
- Un informe detallado de cómo Invivo Wines consiguió ingresar en el TOP 50 Deloitte en solo siete años desde su lanzamiento y de cómo ha roto récords en el campo del 'crowd funding' (financiación colectiva) para impulsar su siguiente etapa de crecimiento, por su co-fundador, Tim Lightbourne.
- Una introducción a las nuevas reglas del marketing del vino por un prestigioso creador de tendencias. Mike Ratcliffe ha establecido y roto reglas como Director ejecutivo en la bodega Warwick Estate en Sudáfrica y en la joint venture sudafricano-americana Vilafonté.
- Una revisión cuidadosa a los cambios de poder en el mercado chino y la democratización del vino con la experta en China Lenz M. Moser, Jefa vinicultora de Chateau Changyu MOSER XV
- Una exploración de los 'vinos de fusión' y de su atractivo para consumidores ansiosos de nuevas experiencias, a cargo de Dominic Rivard, experto en vino de fruta, sommelier, vinicultor, distribuidor, exportador y autor.
- Un informe detallado del crecimiento en Sonoma County –camino de convertirse para 2019 en la primera región vinícola de América 100% sostenible– a cargo de Karissa Kruse, Presidenta de Sonoma County Winegrowers.
- Una llamada a la innovación colaborativa entre rivales para mejorar perfil del sector, por Adrian Bridge, Director ejecutivo de Taylor's Port.
- Una exploración de estrategias alternativas de inversión y crecimiento a cargo de Charles Banks, Fundador de Terroir Selections y conocido por el gran éxito de las marcas Jonata y Screaming Eagle.



HOSTED BY



6 estrellas Michelin para la cena inaugural en el Guggenheim

Los asistentes a esta tercera edición de *Wine Vision* serán obsequiados con una recepción y cena inaugural en el Museo Guggenheim el día 9 de diciembre, que será cocinada in situ por los prestigiosos chefs Eneko Atxa, del Restaurante Azurmendi; Josean Alija, del Nerua; y Llorenç Sagarra en representación del Restaurante Mugaritz de Andoni Luis Aduriz. Entre los tres suman 6 estrellas Michelin.

El jueves 10 constituirá la primera jornada de trabajo, que se celebrará en “Azkuna Zentroa” y concluirá con una cena en el restaurante Azurmendi de Larrabetzu, el único en Bizkaia que cuenta con tres estrellas Michelin.

La segunda y última jornada de conferencias tendrá lugar durante la mañana del viernes día 11 en el auditorio del Museo Guggenheim y, tras un almuerzo en el restaurante Doma del Hotel Silken Domine. Por la tarde se ha organizado un tour a San Sebastián, incluyendo la visita al Basque Culinary Center –la única universidad gastronómica europea- y una visita a la ciudad con degustación de *pintxos* en el Museo San Telmo.

El evento se cerrará el sábado 12 de diciembre con una segunda salida, en este caso a la Rioja alavesa, que incluirá una visita guiada a la localidad de Laguardia, un café en el hotel diseñado por Frank Ghery de la bodega Marqués de Riscal, almuerzo en las Bodegas Baigorri de Samaniego, y una cata vespertina en el Mirador Luis Cañas de Villabuena.

MÁS INFORMACIÓN

WINE VISION BASQUE COUNTRY – Ana Larizgoitia

Tlf: 94 416 08 00

Móvil: 656 788 328

press@winevisionbasquecountry.com

<http://www.winevision.com/>

